

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko irailaren 10eko erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, herrialde txirouetan garapenerako lankidetzaproiektuak elkarrekin finantzatzeko gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak emateko 2021eko deialdia onartu zen**

BDNS(Identif.): 584500

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/584500>).

Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lankidetzarako laguntzen deialdiaren laburpena argitaratzen da, eta horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, baldin eta deialdiaren xedearekin bat datozen planteamenduak eta helburuak badituzte eta jarduera eta egoitza edo ordezkaritza iraunkorra badute Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan. Era berean, Eusko Jaurlaritzako edo Nafarroako Elkartearen Erregistroan inskribatuta eta eguneratuta egon beharko dute beren agiriak.

Deialdi honetara ez dira sartuko izaera publikoko erakundeak eta organismoak, ez eta irabazizko enpresak edo bestelako erakundeak ere.

#### **Bigarrena. Helburua**

Dirulaguntzak ematea GGKEei, herrialde pobretuetako herrien sorkuntza sozioekonomikoa eta kulturala lagunduko duten eta Laudioko herritarren eta proiektuetan edo horien onuradunen parte hartzen duten herrialdeetako kolektiboen artean harreman solidarioak sortzen lagunduko duten lankidetzaproiektuak garatzen dituztenean.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren gaur egungo urriaren 5eko Erabakiaren bidez onartuak. Arabako Lurralde Historikoko 120 zenbakiko BPn argitaratu ziren, 2018ko urriaren 19ko datarekin.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 28.000,00 eurokoa da.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hogeita hamar egun natural, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2021eko irailaren 20a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**